

ESPERIENTZIAREN IZENA: Ermuko Udal Emakumeen Topalekua



Ermuko emakumeen Topalekua
Casa de la mujer de Ermua

ONARRIZKO DATUAK

- **Erakundearen izena:** Ermuko Udal Emakumeen Topalekua
- **Erakunde mota:** Publikoa, udal-baliabidea da.
- **Sortze-urtea:** 2003an inauguratu zen (horrelako lehenengoa izan zen EAEn).
- **Jarduera-sektoreak:** emakume eta gizonen III. BERDINTASUN PLANAK jasotzen dituenak. Alegia, ardatz hauek: genero-mainstreaminga, ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoak, laneko eta etxeko bizitza uztartzea eta erantzunkidetasuna eta emakumeen aurkako indarkeria. Honako jarduerak hauek betetzen ditu: sentsibilizazioa, prestakuntza, salaketa-ekintzak eta emakumeen eskubideen defentsa. Emakume eta gizonen inplikazioa sustatzen du. http://www.ermua.es/pags/igualdad/ca_planes_igualdad.asp
- **Egitura:** Udaleko Pertsonen Alorrean sartutako departamentua da. Alkatetzaren mende dago zuzenean, eta zinegotzi bat da arduradun politiko delegatua. Alor horretan berdintasun-teknikari bat (funtzionarioa) dago, Pertsonen Alorreko zuzendaritza teknikoaren pean. Horrez gain, bi langilez hornitzen duen Ortzadar enpresa kontratatuta du, Emakumeen Topalekuari dinamizazio-zerbitzua eta administrazio-laguntza emateko. Azkenik, aholkularitza juridiko espezializatu eta laguntza psikologikoa emateko, beste bi profesional kontratatzen dira orduka: abokatu bat eta psikologo bat.
Herritarren aldetik, Berdintasun Kontseilua dago. Emakume-elkarteek eta talde feministek parte hartzeko aholku-organoa da, eta 1992az geroztik dago abian. Hori ere aitzindaria da EAEn.
- **Kokapena:** Izelaieta kalea, 12 - 48260 ERMUA (BIZKAIA)
http://www.ermua.es/pags/igualdad/ca_contacto.asp
- **Webgunea:** http://www.ermua.es/pags/igualdad/ca_index.asp?idtipo=29
- **Esperientziak jorratzen dituen gaiak:** Gizon eta emakumeen berdintasunaren aldeko udal-politika. Emakumeak ahalduntzeko toki-mailako berariazko baliabideak
- **Jarduera eremua:** TOKIKOA; eskualde eta EAE mailako sareetan ere parte hartzen du.

HARREMANETARAKO DATUAK

- **Harremanetarako pertsona:** Begoña Fernández Alcalde
- **Telefonoa:** 943171030
- **Helbide elektronikoa:** bfernandez@udalermua.net

SINTESIA

ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPEN OROKORRA:

Emakumeak ahaldundu eta parte hartzeko udal-baliabideak lehen berdintasun- planekin batera jarri ziren abian, Ermuko emakume eta feministen mugimenduak parte hartuta, haiek lehendik ere esperientzia baitzuten alor horretan.

TESTUINGURUA

Zeuden beharrak: Emakumeek ez zuten berariazko espaziorik berdintasunaren alorreko udal-politikan esku hartzeko eta udalerrriaren bizitzan eta historian egin duten ekarpena eta izan duten garrantzia ikusarazteko.

Aldeko aurrebaldintzak: Mugimendu sozial eta feminista indartsua herrian (emakumez osatutako hautagaitza politiko batek parte hartu zuen 1987ko udal-hauteskundeetan).

Udalaren Berdintasun Departamentua egotea, pertsonal feministaz osatua, berezko aurrekontuarekin eta esku hartzeko programekin.

Berdintasun Kontseilua egotea.

Aurkako aurrebaldintzak: "Ghetto" antzeko bat bihurtzeko arriskua.

INFORMAZIO OROKORRA



Zer lortu nahi zen?

Espazio irekia eta dinamikoa, elkargune bat, emakumeek (baita gizonek ere), informazioa eta prestakuntza ez ezik, udalerrian berdintasun-maila handiagoa lortzeko eta, batez ere, emakumeen aurkako indarkeria matxista desagertzeko zerbitzuak eta programak ere eskura izateko eta horietan aktiboki parte hartzeko.

Zer lortu zen?

Emakumeen Topalekua, aurrekontua, programak, zerbitzuak eta berezko pertsonala dituen.

Nola lortu zen?

Emakumeen eskakizunen bidez, mugimendu asoziatiboak eta feministak eta Berdintasun Departamentuak bultzatuta.

Nork ahalbidetu zuten?

Berdintasun Kontseiluan parte hartzen duten elkarteek: Emakumeen Batzarra, Minbiziaren aurkako Elkarte, Emakumea Sustatzeko Zentroa, Emakumea Sustatzeko Zentroko ikasle ohiak, Bidari (desgaitasun fisikoa duten pertsonen elkarte), Nushu (gazte feministak), Tratu onen aldeko Plataforma, Antzerki Taldeko emakumeak, alderdi politikoetako emakumeak, Zipriztintzen berdintasunaren aldeko taldeko gizonak eta Udala bere baliabideekin.

Indarrak eta ahuleziak/zailtasunak

Indarrak:

- Berdintasunaren aldeko legeen babesa da indar nagusia.

Ahuleziak/zailtasunak:

- Mugimendu asoziatiboak indar pixka bat galdu du.
- Emakumeen behar praktikoak aldatuz joan dira eta gaur egun berdintasunaren "irudipen" handia dago.
- Ustezko testuinguru ekonomikoak (krisialdia eta murrizketak) ez dio aurrera egiten utzi, eta nolabaiteko geldotasuna dago.
- Ez da erraza beste jatorri eta kultura batzuetako emakumeak erakartzea.

Arrakasta faktoreak

Feminismoa ardatz nagusia da. Sareak sortzea, eremu guztietan lan egin eta sinergiak lortzeko.

Ikasitako irakaspenak

Prozesuak ez dira linealak eta parte hartzea funtsezkoa da.

Etorkizunerako erronkak

Sare eta aliantza berriak sortzea. Talde urrunagoetara hurbiltzea.